

# Euskal identitatea, identitate ikerketen eta politiken argitara

**Eduardo Apodaka Ostaiakoetxea**

*Soziologian Doktorea, UPV/EHUko Gizarte Psikologia Saileko kidea*

## Laburpena

Identitateari buruzko ikerketak hainbat paradigma teorikotatik garatu dira. Joan diren berrogei urteetan postestrukturalismoaren, postmodernismoaren edota konstruksionismoaren aldaeren goraldia bizi izan dugu. Gaur egun, aldiz, esan liteke paradigma horien oinarrian zeuden dikotomiak gainditu nahi dituzten proposamenak ugaltzen ari direla. Proposamen horien argitara eta identitateak praktika semiotiko-material gisa hartuta, artikulu honek identitate-praktiken ondorio sozial eta materialak aztertzen ditu, hala nola identitate-politiken eta borroken egoera. Azkenik, identitatea eta diferentzia eta anomalia identitarioen artean bereizketa analitiko bat ezartzen da loka-tze garai batean euskal identitatearen gorabeherak zein diren azaltze aldera.

**Gako-hitzak:** identitate ikerketak, identitate praktikak, identitate politikak, euskal identitatea.

*Jasotze data: 2018ko otsailaren 7an.*

*Onartze data: 2018ko maiatzaren 30ean.*

## Resumen

Las investigaciones sobre identidades se han desarrollado desde variados paradigmas teóricos. En los últimos cuarenta años hemos vivido el auge de las distintas versiones del posestructuralismo, del postmodernismo y del construccionismo. Hoy en día, sin embargo, nos encontramos con propuestas que pretende superar algunas de las dicotomías básicas de los debates en que se sustentaban dichos paradigmas. A la luz de esas propuestas y tomando las identidades como prácticas semiótico-materiales se analizan en el artículo los efectos sociales y materiales de las esas prácticas así como la situación de las políticas y luchas identitarias. Por último, se establece una distin-

ción entre identidad, diferencia y anomalía identitaria para dar cuenta del caso de la identidad vasca en un momento de desacople de las identidades.

**Términos claves:** investigación sobre identidad, prácticas identitarias, políticas de identidad, identidad vasca.

### **Abstract**

Researches on identities have been carried out from different theoretical paradigms. For the last four decades we have assisted the rising of different versions of post-structuralism, post-modernism and constructionism. Today there are different proposals that aim at overcoming some basic dichotomies on the debates that sustain those paradigms. Under the light of those proposals, and taking identities as semiotic and material practices, in this article we will analyse the social and material effects of those practices and the situation of identity policies and struggles. We will also establish a distinction among identity, difference and anomaly in order to account for the case of Basque identity in a moment of decoupling of practices, effects and material conditions of identities.

**Keywords:** identity researches, identity practices, identity politics, Basque identity.

## 1. IDENTITATEA AUZITAN

«El hombre vasco, la personalidad vasca, el hecho vasco (...) Una mente honesta, carente de pasión, no puede negar la existencia de tal hombre, de tal personalidad y hecho, a ambos lados de una frontera, situada en medio de un área en la que vive una etnia que habla una lengua y produce una cultura...»

Oso aspaldiko hitzak dirudite, 1983koak dira. *Ser Vasco* izeneko liburuan, Jean Haritschelharek idatziak. Nekez idatziko dira horrelakoak gaur egun. *Hombre, personalidad, hecho, etnia...* ez al dira zaharriak? Erruz mudatu da gure begirada: etnia nekez hartuko genuke egitatetzat eta entitate eragiletzat. Gaur *eraikuntza* da edozer azaltzeko erabiltzen dugun kontzeptua. Jendeek eraikitzen dute euren errealitatea, euren identitatea, euren burua. Areago, identitatea sentimendu pertsonal bat baino ez dela sinesten dugu: zer sentitzen zara? euskalduna sentitzen zara? edo, *Euskal Soziometroan* bezala, nola jotzen duzu zeure burua, euskal herritarra ala espainiarra?<sup>1</sup>

Egia esan, Haritschelharek ere bazuen identitatearen subjektibazioaren, desmaterializazioaren eta *hautazko* bihurtzearen sintomaren bat: «Ser vasco, sentirse uno a sí mismo vasco supone el reconocimiento de un estado de hechos con frecuencia vinculados a una geografía, una historia, o, incluso, una comunidad lingüística. Las motivaciones pueden ser diferentes en cada caso» (1986: 22). Baina zer izan zitekeen «el reconocimiento de un estado de hechos»? Zertaz ohartu behar zen euskal jendea?

Hitz horiek idatzi ziren garaitik hona identitateak aski indibidualizatu eta desmaterializatu dira. Egitate kolektibo baten ezagutza, aitortza, omen zena hautu pertsonal subjektiboa bihurtu zaigu, eta eduki material zehatzak omen zituena sentimendu edo sentiera lausoa bilakatu da. Hautatzearen erretorikak jasotzearen erretorika gailendu du (Brubaker, 2016: 415). Tarte horretan egitate eta errealitate sozialei buruzko ideologia, diskurtso, irudikapen eta teoriak gogor jasan dute postmodernismoaren eta postestrukturalismoaren eragina. Jakina, ez dira bi dotrina horiek jendarte eta jendeen errealitate bizituak aldatu dituzten indar bakarrak: Neoliberalismoa deritzon arrazionaltasuna noranahi zabaldu da, mundua bere neurrira eraldatuz (Laval & Dardot, 2013). Eta neurri horietako bat, hain zuzen, agentzia eta eragimena, subjektibotasun eta esperientzia komunak, sentiera eta jakintza partekatuak birrintzeko dispositiboak asmatzea eta ezartzea izan da. Bide hartan, eta hamaika dispositiboren bidez, identitateaz pentsatzen duguna guztiz eraldatu da, egitate eta izate sozialei buruz sinesten genuena biziki aldatu delako. Orain, identitateak, zilegi izan dadin, norberaren desio eta interesak ase behar dituen proiektua edo jolas iragankorra izan behar du.

1 <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/ikerketa-soziologikoak/>

Itxura batean jendea egitura sozial zapaltzaileak omen ziren identitateetatik askatu egin da, norberaren borondatearen mende egon behar omen dute identifikazioek, alegia, norbait izateko erabiltzen ditugun baliabideek eta tresnek.

Identitateak, identitate adierazleak eta ezaugarriak, merkatu-gaiak dira gaur egun, eta *management* munduan, talde edo komunitate identitateak gehiago eta hobeto lehiatzeko baliatzen diren bitartean susmagarriak dira politikan edo herrigintzan: fundamentalismo eta populismoen bandera bilakatu dira eta etiketa horiek bizkarre-ratu nahi ez dituenak uko egin behar die bai identitate kolektibo substantzialesi, bai identitate material irmoei. Horrez gain, identitateak eraiki egiten direla, ez direla berez izaten, entzuten dugu maiz, baina aldi berean identifikazioen bidez estatuek edota korporazio handiek jende kategoriak, hierarkiak eta rankingak eraikitzen dituzte, horien mende jausten direnei hautatzeko aukera gutxi emanaz. Zer eraikitzen da identitate komun edota kolektiboak eraikitzean? Zer eraitsi eraisten direnean? Identitate horiek egitatea izateak efektu berberak ditu kasu guztietan?

## 2. IDENTITATEAK, IZATE SOZIALAK ERATZEKO PRAKTIKEN EFEKTU ERAGILEAK

Identitateak eta diferentziak harremanak izateko modu sozialak dira, edo hobe esan, praktika sozialen efektu arautzaileak eta eratzzaileak: jende arteko harremanetan nor garen eta zer garen, zer egin eta nola jokatu behar dugun, noren aginduak bete behar ditugun eta nori agindu ahal diogun... Halako galderei berdintze eta bereizte jardueren bidez erantzuten diegu, izate soziala antolatuz eta gauzatuz. Horregatik, identitateak eta diferentziak praktika sozialen efektu meta-praktikoak, semiotiko eta materialak, izaten dira: (1) hainbat prozesu (sozio)semiotikoren efektuak: osagai heterogeneoak kodifikatuz eta artikulatuz sortzen diren (kon)figurazioak edo sailkatze eta balioeste baliabide semiotikoak (*irudikapenak, ikonoak, kategoriak, estereotipoak...*);<sup>2</sup> eta (2) hainbat gauzatze edo materializatze praktika: nork bere praktiken bidez artikulazio horiek (edo alderdi zenbait) gauzatzea, gorpuztea, edota performatzea, antzeztea; edo

2 Identifikatze edo identitate ezartze prozesu semiotikoak bitara laburtu ditut, kodetzea eta artikulatzea (ikus, *Identitatea eta Anomalia*, 62, 63, eta 145 eta hurrengoak), baina zehaztu ahal dira. Esaterako, soziolinguistikari, Bucholtz eta Hall-ek (2004) hauek aletzen dituzte: *practice, indexicality* (hau da, justaposizio metonimikoen bitartez entitate edo gertaeran batek beste baten seinale bihurtzea), *ideology* (bereziki, Irvine eta Gal-en (2000) prozesu ideologikoak aipatzen dituzte: eratzte prozesuen ezabaketa (*erasure*), artikulatutako osagaiak irudi jakin batean biltzea (*iconization*) eta elkarrekintza maila batean sortutako bereizketa besteetan errepikatzea (*fractal recursivity*), eta *performance*, identitate antzeppenak edo berariaz identitate efektua sortzeko praktikak.

auto- eta hetero-egozpena, edo adskribatzea, edota eredu horien arabera elkar zuzentzea, eragitea, bideratzea.

Horrenbestez, identitate lana *meta-praktika* da: praktikei (baina jendarteko bizitzaren beste osagai heterogeneo askori ere) balio-esanahi-zentzua eranstea. Ez dira zuzenki pertsonen, taldeen edo gauzen ezaugarriak, ezta euren esentzia edo izan-muina ere. Identitatea eta diferentzia *harremani esleitutako ezaugarriak* dira: ez dugu identitaterik ez diferentziarik (testuinguru zehatzetako) harremanetatik kanpo, ezta identifikatze eta bereizte praktiketarik kanpo ere. Identitate-diferentziak beti daude jende *artean*, erlaziokoak eta erlatiboak dira, areago: norbera ere jende arteko harremanetan baino ez da *bera* edo *bestea*.

Harremanak izateko eta izanarazteko moduak direnez gero, identitate praktikak ordenamendu sozialaren erabideak dira. Horregatik, antolakuntza soziala dela eta, batzuetan *posizio* hitza erabiltzen da, edo posizioak eta arauzko jardunak uztartzen dituen *rol* hitza, edo arauzko jardunak eta balioak uztartzen dituen *estatus*, edo jendeak, portaerak, objektuak edota lekuak batzen dituen *kategoria*. Halakoekin ikerlari sozialek nabarmendu nahi izan dute gizarteak egitura iraunkor eta irmoak dituela, instituituta dagoela; alegia, bertan, jende motak eta taldeak, jokatzeko arauzko erak edota estatus mailak eta izateko modu legitimoak eta ez-legitimoak ondo ordenatuta eta egituratuta daudela. Posizioak, rolak, estatusak, kategoriak egituretan eta joko sozial egituratuetan jendeak izanarazteko fenomenoak deskripzioak dira. Haietan jokalariek euren taktikak eta estrategiak (Harré & van Lagenhoven, 1999), euren baliabideak eta ekimenak (Lepage & Tabouret-Keller, 1985) ahalean erabiliz euren identitateak eratzen dituzte.

Hortaz, identitate efektuak<sup>3</sup> badira ere joko sozialetan (nor bait edo zer bait) izateko baldintza materialak. Identitateak *objektibatu* egiten dira, arauzko harreman eratuak eta irmo erregistratuak izaten dira joko sozialetan ari direnek ondo ezagutzen eta aitortzen dituztenak. Halakoetan badirudi jokalaria sozialek ez dutela elkarren ilusioen bidez identitateak eratu edo sortu behar, berezkoak direla eta objektiboak. Izatez, erregistro kontua da, edo bestela esan, harreman modu batzuk aski erregistratuta daude joko sozial egonkorren parte direlako, instituituta daude: joko eta gertaera sozialen arauzko egiturak dira. Identitatea ez da beti horren objektiboa. Iheskorra, aldakorra, hegarina da sarritan, ukatua eta baztertua ere bai. Eta eztabaida pizgarri. Orduan igartzen da hoberen identitate lana jardun semiotiko-materiala dela: eztabaidatzea, interpretatzea, baloratzea eta gauzatzea, gorpuztea eta egikaritzea dela, edo hitz bitan,

3 Identitate eta diferentziak jarduera edo lan semiotikoaren efektuak direla argi utzita, *identitate lana* edo *identitatea* erabiltzen ditudanetan irakurri (hobeto ulertze aldera) *identifikatze/bereizte lana* eta *identifikatze/bereizte efektuak*. Ez dago efekturik eragiketa semiotikorik gabe, baina eragiketa semiotikoa instituzionalizatzeko bideak, dispositiboak eta teknologiak ugari ditugu.

instituitzea eta destituitzea dela. Nola zehaztu, esaterako, zein den langile klasea? Zein harreman eta portaera mota da langilea izatea: norekikoa eta zein arau eta efektorekin? Eta, areago, nork erabaki behar du, ahal du, zein harreman eta joko sozial den langilea izatea? Nork du kategoria artikulatzeko, edukiz betetzeko eta inori ezartzeko edota berenez gauzatzeko ahalmena?<sup>4</sup>

Identitate batzuk joko sozial onartuak eta hedatuak dira, esan nahi baita, joko partaide gehien gehienek ondo dakite nola jokatu behar den joko hori betetze aldera. Ez dute zalantzan jartzen jokoa, eta, aitzitik, ondo betetzen dituzte arauak, eta arauak esaten diete zer eta nor diren besteekiko harremanetan eta nola jokatu behar duten. Horrek ez du joko sozialen bilduma betetzen, ezta jendeen identitateak ere: zenbat eta joko gehiago izan, orduan eta identitate gehiago eta identitateak sortzeko lan eta aukera gehiago izango dira. Horregatik ere, beste identitate batzuk talde txiki baten kolusioak baino ez dira; joko sozial handien aldean, intimoagoak eta subjektiboagoak, sozialki ahulagoak. Beste askotan, berriz, ez dugu argi nor den nor eta zelan jokatu behar den, ezta zein den joko soziala ere. Edo joko soziala zein den ondo jakinda ere, eta hartan ezarri diguten nor izanari aurre eta uko egiten diogula, jokoa bera errefusatu eta aldatu nahi dugu. Handik sortzen dira identitate arazoak, auziak eta gatazkak:

- *Zein* da gorpuzten dugun jendarte eraikuntza? Klasea, generoa, arraza, etnia, nazioa, familia, enpresa, alderdia, bizi-estiloa ...? Edo adibide zehatzagoaz: euskal nazioa akaso, poligeneroa agian, elikabide begetarianoa ote? Zein da jokoa eta zein bakoitzari dagokiokeen posizioa?
- Posizio horiek *nola* gorpuzten ditugu? Zein da horiek jokatzeko topatzen ditugun arauak, mugak, aukerak, baliabideak, debekuak...? Zein bide dugu gure praktikak eta harreman modu jakinak erregistratzeko, besteek onar ditzaten, onar diezazkiguten? Nola behartzen ditugu besteak? Nola behartzen dugu elkar hau edo beste izatera?

---

4 Aipatzekoak dira Dolezal kasuari buruz R. Brubaker-ek idatziak (2016). Rachel Dolezalek, amerikar beltzen aldeko aktibistak, guraso zuriak zituela jakin zenean polemika bizia piztu zen arraza, etnia, sexua edota generoaren hautaketaz eta aldaketaz. Brubaker-ek dioenez itxura batean errazago onartzen da transgeneroa transaraza baino. Brubaker-en ustez kategoria-fluxuen aroan bizi gara, baina eztabaida da, hain zuzen, zein kategoria diren irazkorrak eta irekiak, eta zein ez. Erantzute aldera: gizarte antolamenduan funtsezkoak diren kategoriak egitura irazgaitzak izan ohi dira (esaterako, naziotasuna edo maila ekonomikoak ez dira errez hautatzen, ez dira norberaren hautuak soilik: ez da nahikoa islandiar sentitzea islandiar herritarra izateko). Bistan da, gizarte mugikortasunak kategoria zenbait irekiak eta hautazkoak izatea behar du, nahiz eta kategoriak lortzeko irizpideak zorrotzak izan. Amerikar gizartearen antolamenduan arraza funtsezko egitura dela ondoriozta liteke Dolezal kasutik.

- Eta *nola artikulatzen* ditugu identitate konfigurazioak: libreki? intentzios? Zer-nolako ahalmena dugu horiek nahierara, edo gutxienez, jakinaren gainean, banaka zein taldeka, hautatzeko eta sorberritzeko edo hutsetik asmatzeko?

Galderak egitate eta egintza sozialen arteko tenkan ulertu behar ditugu. Identitatea bera ere bai. Kontuan hartu egitate sozial oro egintza sozialez osaturik dagoela. Esan liteke materia bera dela baina egoera desberdinetan: egoera solidoa egitate moduan bizi behar dugunean, eta egintza gisa, dinamikoagoa eta likidoagoa denean (elkarrekintza, elkarreragina, gatazka, edota elkartasun ageriagoak direnean). Egintza eta egitatea materia berekoak dira, baina epistemologikoki eta psikologikoki bereizi behar ditugu. Horregatik diogu batzuetan gorputz eginda topatuko ditugula (psike egoeran: pertsonak), beste batzuetan gorputz artekoan (elkarrekintza egoeran: joko sozialak), eta besteetan gorputzez haraindian (sistema sozial eta material egoeran: erakundeak, antolakundeak, ...)<sup>5</sup>. Identitateekin berdin: identitate lana egintzetan garatzen da, eta partzialki praktika sozialak ditu langai. Identitate praktikak praktika bereizgarriak dira, bereizteko efektuak dituztenak, eta haietan osagai heterogeneoak topatzen ditugu, jakina: gorputz-gogamenaren jarduerak, objektuak, jakintzak, lekuak, harremanak... Horrez gain, guztiek dute, esan bezala, meta-praktikaren erantsia: esanahia, balioa, eta zentzua. Bestela esan, praktiketan gaitasunak edo kompetentziak, zentzuak eta materialtasunak aurkituko ditugu (Shove, Pantzar & Watson, 2012). Osagai horiek dituztelarik, edozein praktikak izan ditzake identitate efektuak, edozein praktika da eratzaillea eta antolatzailea.

### 3. IDENTITATE IKERKETEN ARAZOAK ETA ERRONKAK

Identitatea zentzu askotan kontzeptu etorri berria da<sup>6</sup>. Zientzia sozialetara eta jendar-teko bizitzara heldu aurretik, estatu, gobernu, polizia eta justizia jardueren hiztegieta agertu zen (Descombes, 2013: 12). Jarduera horietan oso helburu praktikoak zituzten identitate ikerketek: jabego bat norena zen ziurtatzea, gorpu bat nor zen zehaztea, epaitua erruduna zen ebaztea, edo zergak nori eskatu behar zizkioten jakitea. Oro har, identitatearen gakoa arrasto edo aztarna katea baino ez zen: erregistro bat. Eta

5 Neurri batean Bourdieu-ri ari naitzaio jarraitzen, kapital kulturalaren hiru egoeren sailkapenari zehazki esan: gorputzua, objektibatua, instituzionalizatua (Bourdieu, 2000).

6 Erik Erikson-ek ekarri omen zuen hitza zientzia sozialetara, norberaren garapenean gertatzen diren identitate krisiei loturik, hain zuzen (Philip, 1983). Esan behar da Erik Erikson-ek bere burua *asmatu* zuen gizona izateaz gain, jasotako eta kontrolatutako identitateetatik ihesean igaro zuela bizitza.

helburua, norbera jendartean kokatzea eta zehaztea, besteengandik bereiziz eta bere buruarekin berdinduz (edo hobe esan bere *gorputzari* egotzitako zerbaitekin lotuz).

Descombes-ek «paradigme du contrôle d'identité» deitu dio jardunbide hari (Descombes, 2013: 22). Halako paradigma batean funtsezkoa *segimendua* da, *trazabilitatea*; alegia, gorputzak eta izenak, izenak eta jabeak, jabeak eta ondareak, ondareak eta posizioak, posizioak eta jarduerak, jarduerak eta ordainak, ordainak eta gorputzak eta abar elkarlotzen dituzten aztarna kateetan etenik edo akatsik ez izatea. *Zu, zu zara* sinadura, edo argazki, edo hatz marka, edo NAN zenbaki, edo banku-kontu batek hala egiaztatzen duelako. *Zu, zu zara*, besterik gabe artikulatu delako segimendu bat, kontrol eta jarraipen erregistro teknologia bat, edo, bestela esan, diskurtso bat eta hainbat kategoria zure *zutasunaz*. Horrela izaki, identitatea diskurtso eta dispositibo zenbaiten erregistratze eta egiaztatze lanaren emaitza baino ez da: bereizte eta berdintze efektuak dituzten praktika guztiak dira identitate praktikak. Hala esanda, asko ez dira ados egongo mugatze horrekin eta norberaren izaera, nortasuna, oroimena, ohiturak, eta abar aipatuko dituzte. Kontrol eta segimendu dispositibo eta egintzetatik kanpo bagara nor, bagara norbait, badugu nortasunik. Azken finean, esan lezakete, gauza bat da *zer* kontrolatzen dugun, *zer* egiaztatzen dugun edo *zer* artikulatzen dugun identitate bat sortze aldera, eta beste bat artikulatzea, kontrolatzea edo egiaztatzea. *Zertasun* hura ote da identitatea? Nola sortu, nola taxutzen dira zertasunak?

Azken urteetan nagusi izan da artikulatze, kontrolatze edo egiaztatzeak nabarmendu dituzten ikuspegiak. Bestela esan, jasotako zertasunen gainetik, zertasunak sortu eta eratzeko agentzia hobetsi dutenak. Oro har, konstrukzionismoak dira. Ezagun denez, konstrukzionismo soziala esentzialismoen eta estrukturalismoaren tesien aurka loratu zen. Bizitza soziala eta kulturala ulertzeko bide zaharberritu bat ireki zuen esentzien eta egituren aurrean eragintza soziala jarritz. Alabaina, errealitate soziala (egiturak barne) jendearen eraikuntza zirela defendatzen hasi eta berehala agertu ziren bertsio hiper subjektibistak eta linguistiko hutsak: dena da diskurtsoaren bidez subjektuek eraikitzen duten errealitatea.

Bide hartatik konstrukzionismoa idealismo subjektibista eta deskonstrukzionismoa bilakatu da (Latour, 2008: 136). Izan ere, edozer eraikuntza dela defendatzen denean hura susmopean jartzeko izan ohi da: hori ez da egiazko egitatea. Funtsean arazo nagusia egitate soziokulturalen estatus ontologiko eta epistemologikoa da. Rudi Keller-en ustez hiru dira: *fenomeno naturalak* humanoen intentziorik gabe gertatzen dira (adib., eguraldi fenomenoak); *artefaktuak*, jendearen jarduera intentzionalaz egindakoak (adib., liburuak); *produktuak*, jendearen jarduera kolektibotik sortuak, baina intentziorik gabe (adib., hizkuntzak) (Keller, 1990, in Jablonka, 2014: 72). Sozialari dagokionez, asko dira uste dutenak egiazko egitateak azkenak baino ez direla, bestela subjektiboak eta faltsuak direla. Latour-ek ederki kritikatu du ikuspegi hori: (Latour-en teoriaren



kritikoe) «parecían operar con la extraña idea de que había que someterse a esta opción inverosímil: algo es real y no construido o es construido y artificial, imaginado e inventado, y falso» (Latour, 2008:133). Latour-ek hibridoak defendatzen ditu. Eta nik erantsiko nuke identitate kontuetan beste biderik ez dugula: identitate artefaktu asko inoren asmo eta intentzio gabe agertzen zaizkie jendeei bizi bidean, beste asko, ordea, asmoz eta oldez antolatzen dituzte bereizgarritasuna, autentikotasuna, edota gorentasuna lortze aldera. Eta askotan, gehienetan, hibridoak izaten dira: berez dinamika sozialetan agertutakoak eta aldi berean, asmoz eta berariaz asmatuak eta armatuak, eta norberari dagokionez jasotakoak bezain hautatuak.

Ikusten denez, auzi honen muina izate sozialen estatus ontologikoa da. Baina auziak garrantzirik badu ez da kontu filosofiko amateur interesgarria delako, baizik eta identitate praktika zenbait *identitate egitate* legitimo gisa ezartzeko, nagusitzeko, eta beste zenbait deslegitimatzeko eta ezereztatzeko erabiltzen direlako. Borroka diskurtsibo politikoetarako arma bilakatu da deskonstrukzionismoa; noski, *bestea* desegiteko arma (Apodaka & Morales, 2013). Dena den, artefaktu/produktu aurkaritza horrek ez du zentzu handirik paradigma goi-modernistan. Nire ustez, jendeen agentziaren eraikitze ahalmena zein den ondo ulertuta, konstrukzionismoa defendatzen jarraitu behar dugu, baina baldintza birekin:

- Seriotan hartu behar da soziala. Alegia, zerbait eraikuntza soziala dela diogunean ulertu behar dugu soziala “hainbat parteren elkarrekin sustengatzen duela”, parte batek nahikara aldatu ezin duen zerbait dela hain zuzen. Soziala *subjektibo* eta *idealaren* kontrakoa da: intersubjektiboa denez norberaren gogamenari kanpotik eta materialtasun osoz ezartzen zaion errealitatea da. Edozein egitura sozial, edozein egitate sozial elkarrekintzetan baino ezin da izan. Baina inozegia da pentsatzea elkarrekintzak nahikunde indibidualaren erresumak direla. Aitzitik, elkarrekintza sozialek Durkheim-en egitate sozialen ezaugarriak izan dituzte: norbanakoaz gaindikoak dira, eta norbanakoek behartze, mugatze, eta derrigorrezko arau gisa bizi behar dituzte maiz. Haietan ez dago jolas librerik, joko ondo arautua eta etengabe zuzendua eta bideratua baizik; besteak beste, elkarri egiten diogun zuzentze normalizatzaileagatik.<sup>7</sup>

7 Norbera ere jardun sozialen emaria da, eta sozialak direla edozein subjektu (banako)ren ahalmen eta gaitasunak (batzuetan, gainera, joko sozial jakin batekoak baino ez). Norbanakotasuna bera ere interdependentziaz eratortzen da. Simmel-en ideia klasikoa da: zenbat eta interdependentzia gehiago izan, orduan eta independenteagoak sentituko dira. Banako independenteak in(ter) dependenteak dira. Baina horrek badakar ere harreman, joko eta sare sozialen kristalizazio bat, soziala eta kultura despertsonalizatu eta objektibatu egiten da (Simmel, 1986).

- Eta bigarrena: konstrukzioen eragileak ez dira subjektu immaterialak eta isolatuak. Konstruksionismo materialista behar dugu eta horrek esan nahi du askotan egitate sozialak ez direla nahierara edo intentzios jendeek egindakoak, materia sozial eta naturalek ere parte hartzen dute eragintza hartan (euren baldintzak, gaitasunak, mugak ezartzen dituzte). Subjektuei dagokienez, subjektu kartesiar eta kantiarra berraragiztatu behar dugu (Shotter, 1999).

Horrenbestez, konstruksionismoa errealitateen eraikitze eta eratze sozialak ikertzeko proposamena da. Zehatzago ere: materializatu, naturalizatu edo entitate gisa aurkezten eta ezartzen zaigun mundu instituituan jendarteko prozesu ez-intentzionalek eta jendeen intentzioek zein betekizun izan duten ezagutzeko atea irekitzen digu konstruksionismoak. Baina, esan bezala, soziala da hainbat partek izanarazitakoa. Egitateak deritzegunak elkarren arteko lotura eta harreman sare ugaritan, hala nola aurretik entitate gisa ezarri direnetan, sustengatu ohi dira: hainbeste joko sozialetan bermatzen direnez gero, berez sustengatzen direla dirudi edo erradikalagoa izanik, berez sustengatzen dira joko sozialei darizkien efektu arautzaileak baitira <sup>8</sup>.

Postmodernismoaren eraginaz sortu ziren konstruksionismoaren bertsio subjektibistak eta desmaterializatuak agentzia libre eta banakatuaren gorazarre gisa hartu ahal dira. Alde horretatik jende zapalduak ospatzeko modukoak izan bazitekezkeen ere, maiz zapalkuntza edo bazterketaren indarren egiazkotasun soziala ukatzeko erabili dira eta ondorioz haien eraginak psikologizatu dira (norberaren identitate edo bizitzaren gestio txarraren ondorio gaiztoak izango balira bezala). Baina ez konstruksionismoan, ez postestrukturalismoan, ez da erabat baztertzen egituren eta egitateen eragina, nahiz eta agentzia (eta ez beti ekintza intentzional subjektibo gisa hartuta) nabarmendu nahi izan den. Soilik irakurketa partzial postmodernistatik ukatu da egituren, egituraketen edo egitate sozialen eragin materiala<sup>9</sup>.

Gaur egun, alabaina, gauzak aldatzen ari direla esan liteke, berreskuratzen ari baita (subjektibismo testual edo diskurtsiboaren hegemonian) bigarren maila batean ostendurik geratu ziren materialtasuna eta intersubjektibismo soziala. Postmodernismoaren erauntsian bertan bazen identitateen errealitatea (esan nahi baita, egiturazko materialtasuna) defendatzen zuenik. Esaterako, Paula Moyak orain hamazortzi urte

8 Estatistikan “sustengatzen diren gauzak” nola eraikitzen diren ikusteko: *Desrosières-en* «Comment faire des choses qui tiennent: histoire sociale et statistique».

9 Egia esan, antagonismo faltsu edo interesatu baten aurrean gaude, Jan Blomaert-ek ondo dioen moduan: «It is rarely observed that scholars such as Bourdieu and Foucault did not just reject any concept of structure but reject a specific one: the Lévi-Straussian one referred to above. They rejected a certain kind of structuralism (“poststructuralism” would be more accurately defined as “post-Lévi-Straussism”) but not “the structural” as a dimension of social systems» (Blomaert, 2017: 44).

identitateak ikertzeko ikuspegi postpositibista errealista aldezen zuen saio-bilduma bat argitaratu zuen. Saio horietako egileak ahalegindu ziren postmodernismoaren (zehazkiago, frantziar postestruturalismoaren) kritika antiesentzialisten onurak jasotzen eta aldi berean haren kalteei aurre egiten. Esentzialismoak eta postmodernismoak identitate errealeen munta politikoa gutxiesten zutelak kritikatu zuten. Izan ere, identitate ilegitimoak deuseztatu nahi dituenak arinago serio hartu behar du kontuan zein diren jendarte jakin batean eraginik duten identitateak, zeren identitate efektuak ondorio epistemiko eta politiko errealak baitira<sup>10</sup>. Ikerlari horiek feministak ziren eta *standpoint*, *interseccionality*, *racialization* eta antzeko kontzeptu kritikoak ari ziren lantzen zapalkuntza eta bazterketa identitateen bidez nola gauzatzen diren, eta zein errealak, materialak, politikoak eta epistemikoak diren argitze aldera (ikus., Harding & Hintikka, 1988; Alcoff et al., 2006).

Baina handik hona arrunt ugaritu dira egitatea/egintza eta materia/diskurtsoa gainditu nahi izan dituzten jarrerak. Orain hogeitaz hamar urte baino gehiago landutako materialismo berri baten kimuak eta fruituak hasi gara biltzen (Dolphijn & van der Tuin, 2012; Beetz, 2016). D. Haraway, R. Braidotti, J. Butler, M. De Landa edo B. Latour eta beste askok konstrukzionismo eta errealismoaren dikotomia gainditu guran, sorkuntza (edo ekoizpen) sozialaren materialtasuna nabarmendu dute, testualtasun eta eraikuntza sozialaren ikuspegietatik harago eta dikotomia modernista (natura/kultura, gorputza/espiritua, agentzia humanoa/inertzia ez-humanoa...) atzean utzirik (Coole & Frost, 2010). Ildo horretan diotenez identitateetan denetariko osagai heterogeneoak artikulatzen dira (berdin materiak, artefaktuak, lekuak...). Horrela, adibidez, identitate biomedikuak aztertzen ari dela, N. Rose, P. Rabinow edo B. Latour-en ekarpenak bilduz, zera dio Castillo-Sepúlveda psikologo sozialak (2015: 56):

«En el plano biosocial la identidad implica una *composición*, es decir, una asociación de esfuerzos entre humanos y no humanos que reconfiguran el significado y definición sobre sí mismo: una acción que es propiedad de entidades asociadas (Latour, 2001). Por tanto, *la identidad*

10 «Identities are thus not simply products of structures of power; they are often assumed or chosen for complex subjective reasons that can be objectively evaluated. Moreover, identities have consequences for the kinds of associations human beings form (such as white supremacist churches along the lines of Christian Identity), and the sorts of activities they engage in (such as blowing up federal buildings or shooting random nonwhite or Jewish people). So, while the authors and editors of this book do not take the reification of existing identities as our goal, we insist they must be thoroughly understood before they can be either transformed or dismantled. In order to understand them, we need to be able to distinguish those identities that are legitimate from those that are not. We need to take the epistemic status of identities seriously enough to make such distinctions» (Moya et al., 2000).

*se encuentra deslocalizada y distribuida en el entramado híbrido que es social, tecnológico y biológico.»*

Egileak berak etzan dituen hitzei arreta emanez gero, ohartuko gara materialismo honek osagai heterogeneoen (material, semiotiko, sozial, teknologikoen) artikulaziotzat dituela egitateak (eta ondorioz, identitateak). Beste ukitu batez, M'charek-ek honela dio arrazari buruzko egitateaz eta fikzioaz ari dela: «facts are less about discovery and more about the making of reality by assembling heterogeneous material. The biological is not pre-given but made. Also, I contend that facts and fictions made of the same stuff. They are performed as different in very specific practice» (M'charek, 2013: 423). Fikzioak eta egitateetatik harago, arraza praktikan materializatzen da, erreala egiten da.

Ikerketa lan eta ildo horietan ugari agertu dira izendapen hibridoak, maiz konposatuak: *semiotika materialak* (Haraway, 1991; Mol, 2002), *actor network* (Latour, 1999), *actant rhizome* (Latour, 2008), *ekipamendua* (Rabinow, 2009), eta abar. Hibridoetan topatzen dugun aniztasuna ez da eskuarki ontologikoa (natura versus gizartea, esaterako) baizik eta aniztasun praktikoa: praktika desberdinetatik erortzen diren efektuak. Bistan da, kontzeptu hibridoak aniztasuna artikulatzeko tresnak dira, errealitate heterogeneoen kontu emateko egokiak direlakoan taxutuak. Baina nola egiten dira elkarte edo uztardura horiek? Artikulatzea da gakoa. Esentzialismo errealistan gauzak berez artikulatzen ziren, postmodernismoan subjektutasun linguistikoa zen artikulatzaile nagusia, bi mutur horiek gaituztuz gauzen eta subjektutasunen eragintza onartzen dute neomaterialistek, gehienetan gainera metonimia, justaposizio edo jarraitutasuna jartzen dute prozesu eragile gisa. Batzuek gainera ikuspegi errealista erradikalagotik artikulazioak berezko mihiztadurak direla edo izan daitezkeela pentsatzen dute <sup>11</sup>.

Nire aldetik, kontzeptu hibridoen bilduman, egitura eta egintza bateratze eta orekatze aldera, Jan Blomaert soziolinguistak (2017: 44) egindako proposamena atsegin dut: *constructure*, agentzia eta estruktura (*construction-structure*) batzeko modu eroso izateaz gain berehala ulertzen den terminoa baita<sup>12</sup>. Esaterako, errez

11 Argiena agian Manuel De Landa filosofoa da (2006). De Landakuste du, idealismo neokantiarrek ez bezala, munduak badituela berezko gaitasun morfogenetikoak, eta mihiztaduretan (*assemblage*) agertzen direla elkartzearen poderioz bai gaitasun, bai ezaugarri *emergenteak*, agertu berriak.

12 «... in constructures, we can unify traditional notions of “structure” and “agency”. Slightly rephrased, we have a tool for recognizing two essential characteristics of social life, and we already discussed it above – iterativity and creativity. Most of the behavior we deploy socially is overwhelmingly iterative, but slightly inflected by unique, creative and situated performativity. Observe, however, that I do not equate iterativity with stability and creative performativity with change. *The entire mix is continuously changing*, including the “iterative” aspects of it» (Blomaert,

uler dezakegu identitateak *konstrukturak* direla, hau da, egintza sozialetan eratzen eta egituratzen ditugun adina egituratzen dizkigutela egintza sozialak. Ikuspegi materialista erradikala edo moderatua hartuta, identitateak osagai eta eragintza heterogeneoen konstrukturak dira. Berrero ere arazoa da nola elkartu eta hasi diren eta nola iraun duten elkarrekintzetan osagai heterogeneo horiek. Berez alboratu ote dira? Zorizko justaposizio gordinak ote dira? Edo, elkarrekintza sozialean esanahi, zentzu eta balio bila aritzen direnek lotu ote dituzte?

Azken galderak adierazten du nire jarrera. Nik materialismo *psikosozial* bat defendatu nahi dut. Arrazoi batengatik: direla berezko mihiztadurak, direla jendarteko elkarteak, jendearen bizitza sozialean identitate efektuak izan ditzaten, artikulazioek interpretazioa behar dute, hau da, etengabe biziberritu, egoeran gauzatu, edo soilago esan, *zentzuz praktikatu* behar dira. Zentzu hori ez da norberaren baitatik azaleratzen den zentzu subjektiborik, ezta historia azpiko zainetatik korritzen den zentzurik, zentzu hori lan intersubjektibo eta sozialaren emaitza iragankorra da. Errez galtzen da *erregistro zaindaririk* gabe, esan nahi baita, interpretazioak negoziatzen eta instituitzen ari diren eragilerik gabe. Erregistroak ulertu ahal izateko bizitza sozialaren instituzio eta destituzio dinamikak ulertu behar ditugu eta ez baztertu. Badira defendatzen dutenak identitaterik ez dela eta identitateak antzezen ditugun itxurakeriak baino ez direla, asmakeriak. Baina orduan jendarterik ez dela eta elkarrekintza oro hutsetik hasi behar duen hartu-eman delako defendatu beharko lukete. Kontrara, nik identitate lanaren ondorio instituituen eragintza instituitzailearen garrantzia defendatzen dut eta identitatea seriotan hartzeko deia egiten. Identitatea egitate material gisa, konstruktura gisa, hartzeko deia ere bai<sup>13</sup>.

Hitz gutxitan esango nuke *identitate egitateak* aitaturako erregistro zaintza haiek direla. Gauzak horrela, hasieran jaso ditudan Haritschelharen hitzei erantzun bat emateko unea heldu zait. Berak hala zioen: «Ser vasco, sentirse uno a sí mismo vasco supone el reconocimiento de un *estado de hechos* con frecuencia vinculados a una geografía, una historia, o, incluso, una comunidad lingüística». Nire ustez *egitate(en) egoera* hura

---

2017: 45).

- 13 Berehala agertu zait buruan esentzialismoaren salaketa; erantzun zahar bat ere bai: «The answer to the problem of essentialism, then, is not to eliminate the study of identity. Without identity, we argue, there can be no anthropology, since cultural processes are intimately bound up with socially located cultural subjects (...) Previous research often failed to distinguish between essentialism as a theoretical position and as an ethnographic fact» (Bucholtz eta Hall, 2004: 375). *Etnografi egitatea* dena eguneroko bizitzaren egitatea ere izan ohi da. Natiboak garen neurrian, badakigu gure errealitate sozialean egitateen mende bizi garela, horretaz elkarri ohartarazten diogu etengabe. Baina, egitateak, azken finean, egintzen ondorioei buruzko irakurketa, interpretazioa eta bizipena diren bezala, identitate egitateak ere elkarrekintzen ondorioak baino ez dira.

euskal identitate lana edo jarduera baino ez da; arestian esandakoari jarraituz, prozesu eta efektuen arabera errez aztertu ahal duguna: (1) euskal identitatearen *artikulazioa* (lan semiotiko edo diskurtsiboa, figurazioak eta ikonoak sortzea; eta horiek erabilia, sentiera berezia sortzea); (2) identitate *praktikak* (ohiko praktikan figurazio horiek gauzatzea, edo performatzea, antzeztea, erakustea...); eta (3) gauzatze eta egikaritze horien ondorioz hedatu eta iraunkor egiten diren, ari diren, *instituituak* (batetik, sentiera identitarioa duen jende multzoaren antolakuntza, baina bestetik, horien izenean edo horiek erabilia eratzen diren instituzio politikoak, sozialak, materialak eta abar). Oso simple esan, euskal identitate lana euskal zeraren eraikuntza da, alegia, euskal zera asmatze sozialaren tradizio luze bat, lan semiotiko-material sozial askoren jarraipen bat, behin eta berriro orainetik iraganera begira berreraikitzen eta berrasmatu behar den tradizio bat. Hala delakoan, segituan aztertu nahiko nuke zein baldintza materialetan, zein logika arautzaile eta behartzailetan ari den lan hori egiten gaur egun.

#### 4. IDENTITATE POLITIKAK: IDENTIFIKATZAILE ZURRUNAK ETA IDENTITATEEN (HIPER)MEREKATUAK

Identitate ikerketek balio eta garrantzia badute, identitateak *botere tresnak* direlako izaten da: jendeak meneratzeko eta askatzeko tresnak eta joko-eremuak direlako. Nola ez? Identitateak jendarte posizioak direla esan dut. Jendartean garelarik, nahigabeen ere besteekiko posizioen batean gaude, askotan posizio horiek baino ezin gara izan, besterik ez digute onartzen, hala izanarazten gaituzte nahitaez. Normalean, posizio horiek eraikitze bi bide aztertu ohi dira: *taldekatzea* (kategoria kolektiboak ezartzea) eta *kokatzea* (egintza-egituretako posizio-rolak ezartzea). Alde horretatik, identitateak elkarrekin eta elkarri, elkarrekintzan, onartu edo errefusatu behar dizkiogun posizioak dira, eta horien arabera egiten diren *norbaitasun egozpenak*. Baina identitateek ere ihes egiten diote etengabeko negoziazio hurbilari, elkarrekintzetan gauzatu behar izateari, edota artikulatze eta desartikulatzearen lan semiotiko eta ideologiko artatsuari. Identitateak, bai posizioak, bai norizanak, kronotopo zehatzetatik askatzen eta abstraditzen dira<sup>14</sup>. Horrela, izendatzaile *indexikalak* (lekuan lekuko esanahia hartu behar dutenak) *izendatzaile zurrunkak* bilakatzen dira; zertarako eta ordenamendu sozialean edonon, edonorekin, edonoiz, esanahi, zentzu eta balio berbera izateko, eta horrela ordenamenduari dagokion eran elkar kategorizatu eta kokatu dezagun<sup>15</sup>.

14 Bakhtin-en kontzeptua erabiltzen ari naiz, Blomaert-ek eman dion adieran, ikus.: Blomaert eta De Fina, 2017.

15 Izendatzaile zurrunka da S. Kripke logikoak izen propioei emandako izena, edozein mundu posibletan objektu bera izendatzen duten izendatzaileak direlako. Ez digute ezer esaten objektua-

Jendarte gehienetan asmatu dira ordenamendu soziala antolatzeko izendatzaileak: identitate adierazle edo erakusleak. Erakusle horiek izen (*kategoria, etiketa, jentilizio*) edo irudikapen (*ikono, estereotipo, prototipo*) bakar batera biltzen dituzte artikulatutako osagaiak eta horien bidez ere jendeak eta gauzak, praktikak eta lekuak, sinesmenak eta hizkerak, ordenamendu sozialean finkatzen dira, harriak harresian bezala. Hala ere, identifikatze dispositiboan bitartez identitate kategorizazioak testuinguru batetik bestera mugitu ahal dira euren efektuak galdu barik. Esaterako, noble edo esklabo batek noble edo esklabo izaten jarraituko zuten euren *estatutua* bermatzen zuten dispositiboan eragin ahalean (identitate agiriren bat, janzkeraren bat, mutilazioren bat...), edo jende talde batek urteak pasa arren taldekotasunari eutsi ahal dio erritual eta adierazpen batzuen bidez. Transmisioa, ikusten denez, ez da soilik identitate kultural batzuen erronka, identitatearen muina da. Denboran eta espazioan, kronotopo batetik bestera mugitu ezin den identitatea ez da identitatea.

Testuinguru homogeneousak, kronotopoetatik askatutako “espazio-denbora orokor abstraktuak” sortuz, joko sozial hedatu eta iraunkorrak sortzeko ahaleginak egin dira historian. Neurri batean edozein espazio-denbora komun halako ahalegin baten emaitza da. Eta instituitzea, azken finean, espazio-denbora sozial komunak sortzea da: erakunde publiko bat, enpresa bat, merkatu bat edo familia bat sortzea bada beti espazio-denbora sinkronizatua sortzea eta finkatzea. Instituzio sozialek, oro har, bermatzen digute jokoan dugun posizioa, eta meta-instituzio edo instituzio gain-ordenatuek bermatzen digute barnebiltzen dituzten harreman zirkuluetan zehar (haiek arautzen duten espazio-denbora eta joko sozial zabalagoan) identitateak garraiatu ditzakegula.

Modernitatean identitateak meta-instituzioen aparatu burokratikoari esker (estatuak, elizak, armadak, ...) bizi leku eta espazio hurbiletatik abstraitu ziren, eta horrela sistema sozial larri (eta moderno) batzuen identitateak agertu ziren. Izan ere, modernizazioa zentzu askotan espazio sozial homogeneousak sortzeko joera izan da (joera hori ez da eten, garai batean prozesua estatuetan garatu bazen ere, egun esta-

---

ri buruz, erakutsi baino ez dute egiten. Identitate kategoria, etiketa, seinale edota zeinu guztiei eman ahal zaie zurruntasun hura, orduan jendeak posizio hierarkiko jakinetan lotzeko baliabideak bilakatzen dira. Harago doa S. Žižek: «objektu baten identitatearen bermea, identitate hori gertaerek ukatzen duten egoera guztietan (...) izendatzearen atzeraeragina da: izena edo adierazlea da objektuaren identitatearen euskarria» (1992: 134). Baina Bourdieu-k (1997) gogorarazten du zurruntasuna bermatzen duen instituzioa behar dela: «Instituzioa den aldetik, izen propioa denbora eta espaziotik kanpo ari da (...). Horrela, lortzen da jendarteko ordenak ezartzen duen betebeharrak: identitatea, hau da, “norberatasuna” edo *constantia sibi*». Hala da: izen propioek, disposito instituzional egokiak izanda, artikulazio zurrunkak dira. Beste edozein izendatzaile edo adierazlek berdin jokatzen du.

tuz gaindiko homogeneousazioa ari da gero eta agertzenago). Hortaz, identitate modernoaren eraikuntza ulertu ahal izateko nazio-estatuaren gizartegintza ulertu behar dugu. Estatuak gizarte talde homogeneousoa eraikitzen ahalegindu dira: merkatu bakarra antolatzeke, baita legitimazio psikosozial bat gorputzetan ezartzeko ere (bidenabar esan, prozesu hibridoak izan dira, bai intentzioz eginaz, bai berez agertuak). Tilly-k (1992:100) horrela azaldu zuen:

«In the period of movement from tribute to tax, from indirect rule to direct rule, from subordination to assimilation, states generally worked to homogenize their populations and break down their segmentation by imposing common languages, religions, currencies, and legal systems, as well as promoting the construction of connected systems of trade.»

Berdintze horiek gizarte bakarra egituratu zuten, egitura sozialari zegokion identitate molde bakarra sortuz, identitate ustez orokorra, oro harkorra. Hala ere, identitate hori ez da inoiz izan uste bezain homogeneousoa, neurri handi batean homogeneousatze prozesuak burutu ez direlako, baina, batez ere, identitate orokorraren estandarra batzuen pribilegioa izan delako. Hitz gutxitan esan, gizarte modernoetan identitate hierarkia argia egon da: goi-erdiguneko egiazko identitatea (ororentzat osotasun araua) eta identitate horren behe-bazterretan, mendeko osagarriak. Identitate osotasunaren jabea naziokidea da: aldi berean ikonoa, eta jende egokiak eta hautatuak moldatzeko eredia. Hura gorputzeko hezkuntza eta diziplina sistema zenbait apailatu ziren, nazio-kideen zirkulutik kanpo mendeko subalternoa geratu zirelarik. Egia esan, naziokideak ere gehien gehienetan naziokidetzan baino ez ziren “identikoak”, eta ez guztiz. Esan nahi baita, frantziar edo espainiar naziokideak sortu ziren eskola, armada edota lege eta zerga batasunaren bitartez, baina gizarte modernoak ez ziren izan berdintasunaren erresuma: identitatea ez da izan parekotasuna, gehienbat *kultura bera* (hizkuntza, ohi-turak, jaiak, e.a.), gorputzeko hezi zituzten masak, praktika eta iruditeria homogeneouso batzuk ezarriz (izan ere kultura bera izatearena mito legitimatzaile modernoa izan da; baina oso gutxitan gauzatu den mito).

Identitatearen arau nagusia, jakina, estatu-eremu osoan identitate zurruna bilakatuko zen (naziotasun aitortza zein agiriek argi uzten duten moduan: nor *agiriak dioen bera* da). Nazio-identitatea, beraz, legitimazio gorputzua bilakatu zen identitatearen hiru egoeratan: *gorputzua*, hainbat jenderen praktika eta disposizioetan; *artikulazio* edo konfigurazioa, hainbat diskurtso, ideologia, dotrina, lege eta kode normatibotan; eta *objektibatua*, bai estatu-dispositibo eta aparatuetan nola jendarteko sareetan (merkatuan eta hedabideetan adibidez). Horrela, bada, estatuarekin bat egiten zuen gizarte sistema oso eta itxi bati zegokion identitate sistema ezarri zen. Hasteko, identitate nagusi eta gain-ordenatua, erdigunean, naziotasun osokoak: gizonak, heterosexualak, zuriak, helduak, nazio-hizkuntzakoak, klasea ez den klase ertainekoak ... Horiek ber-



dinak bide ziren neurrian, neutro bihurtu omen ziren eta horrela ere, “klase ertainaren identitate ezaren” baitan nork bere identitate pertsonalaren bereizgarritasun partzial eta pribatuak izango zituen (hain zuzen, pribatu eta osagarri izango; arau publikoek eta moral orokorrak baimentzen zioten neurrian).

Baina, identitate horrek naziokidetza osorik ez zuten mendeko guztien posizioak ere zehaztu, finkatu eta ofizialdu zituen. Haien ziren diferenteak, eta desberdinak, beheko mailetakoak. Diferentziak ezin ziren, noski, estatu-gizartea egituratzen zuen identitate gain-ordenatuaren maila eta izaera berekoa izan: ezin ziren bilkura publiko orokorraren lotura izan. Besterik gabe, kondizio sakratu eta naturaltzat (emakumea, umea, arraza primitiboak, ...), pertsonaltzat (estatus edo maila sozioekonomikoa, osasuna, zoria, ...) edo ezabatu beharreko anomaliatzat (alofonoak, nomadak, mugatarrak, ...) joko zituzten. Diferentzia horien tratamendua ez da berdina izan. Umeak hezi behar ziren, emakumeak otzandu, basatiak menderatu edo zibilizatu, nomadak nonbait finkatu, alofonoak elebakar ofizialak bihurtu, langileak hiritar zintzoak izateko diziplinatu, eta abar. Gehienetan, mendeko identitate horiek betekizun osagarria izan zuten bai diskurtsoan, bai praktikan, *beste baliagarriarena* egitera behartu zituzten: kasu batzuetan identitatearen artikulazioak eta gauzapeak mendeko osagarria behar zuten, gizon onik ez zen izango emazte otzanik gabe. Bestalde, osagarri gisa balio ez zuten mendeko bazterrekoak ezabatu beharrekoak izango ziren (hizkuntza nazionalak ez du behar barne-alofonorik, kanpoko bestea eta barneko azpi-hizkera baino ez). Eta kasu guztietan eremu publiko eta hango identitate nagusia (beregaineko bakarra) egiturako identitatea izan delarik, beste guztiak pribatu edo akzidentalak izan dira. Eta horiek publikotasun, osotasun edo beregainekotasuna eskatu duten neurrian gatazka piztu dira.

Eredu modernista, estatu-gizarte totalarena, XX mendearen azken laurdenean sartu zen krisian, hein handi batean arrakastak eragindako krisia. Klase ertainaren gizartea ondo finkatuta zirudienean, publikotasun eta osotasun ofiziala eskatuz bertu ziren nonahi arrazismo, matxismo edo kolonialismoaren aurkako borroka, noiz eta kapitalismoaren paradigma aldaketa hasi zenean. Handik, eta globalizazio dinamika lagun, hasi ziren identitate borroka eta gestio-politikak (multikulturalismoa, esaterako). Eta ez kasualitatez, hasi ziren hipermodernitatearen postmodernismoaren aldarriak. Ez dut hemen horiek guztiak deskribatzerik eta analizatzerik, esan dezadan bakarrik harrezkero agentzia kolektiboa sor zezaketen identitateak zatikatzeari eta desmuntatzeari ekin zitzaioela. Eta ez soilik sistema defendatzeko maltzurkeria gisa, sistemaren aurka aritzen ziren subalterno subordinatu edo *sub-jektu* (literalki, azpiratu) asko ere hasi ziren identitatearen logika eta hierarkiaren aurka mugitzen (eta ohartu gabe edo, euren agentziaren oinarriak birrintzen). Horrela, identitatearen aurkako diskurtso eta praktikak biziki hedatu ziren, identitatea posizio finko eta totala zelakoan.

Hasieran nioen bezala, identitate sozialak eta kolektiboak desustantzializatu, desmaterializatu, atomizatu eta zatikatzearen aldeko diskurtso eta praktikak ugaldtu ziren, hala nola hartarako dispositibo bereziak. Oro har, subjektu postmodernoaren orpotik etorri zen subjektu neoliberalaren inguruan taxutu dira joera horiek. Subjektu neoliberalaren ideia erabili da gehienbat harreman sozioekonomikoetako subjektuak eratzeko agertu diren arrazionaltasun eta teknologia berriei buruzko teoria kritikoe-tan (Laval & Dardot, 2013; Lazzarato, 2013; Chandler & Reid, 2016). Baina ez da eremu horretara mugatzen, aldaketa kultural larri baten aurrean gaude eta. Izan ere, gizarte hipermodernoan modernizazioaren erradikalizazioa den aldetik, globalizazio neoliberalarekin, IKTak lagun, joan da hedatzen. Analisi kritikoetan aipatzen diren joera nahiko ezagunak dira: krisi orokorra, ziurgabetasuna eta segurtasun ez orokorra, berehalakotasuna, epe luzeen bukaera, bizi-narrazio eta bizi-egitasmorik gabe (Sennet, 1998, 2006), arriskuen gestio indibidualizatua eta komertzializatua (Beck & Beck-Gernsheim, 2002), bizimoduaren indibidualizazioa eta desinkronizazioa (Bauman, 2001; Aubert 2004), deslokalizazioa, informalizazioa (Lash, 2005) eta abar.

Horrekin guztiarekin, pertsona oso eta onargarriak izateko eredu moralak ere asko aldatu dira. Gehienbat, kanpo-psikologizazio bat gertatu da, alegia, pertsonen kontsumo adierazleen eta laguntza zerbitzuen bitartez eraiki eta aurkeztu behar dute bere burua. Nitasuna egoeran egoeran baliabide horien bidez egokitu eta aldatu behar den irudi eta antz bilakatu da. Badirudi, niaren gestio estrategikoak bere goia jo dela, norbait izatea antzezpen edo performa iragankorretan irudi bat izatea baino ezin dela izan. Horrela, bada, oraingo sistema sozial gehienek identifikatze eta bereizte exigentziak norberaren desio gisa aurkezten dizkigute. Halatan, identitatea proiektua edo plana da: galdu ala irabazi ahal den proiektua, aldi baterako dugun plana... Kontrakarrean, identitate borroka gehienek determinazio eta inposizio soziopolitiko*ei benetakotasuna* (eta alienazio ororen gainera nor *bera* izateko eskubidea) kontrajarri dietenez, nekez baztertu ahal izan dute guztiz identitatea definitzeko nahia, haren autentikotasuna askatzeko nahia (bidenabar esan, autentikoa ez da egiazko esentzia edo antzekorik, autentikoa zentzuz betea da). Areago, autonomiaren paradoxa kontrajartze hartan agertzen da: autonomia elkarmendekotasun eta elkarrekintza-sare sozialei esker lortzen den ahalmena denez, identitate zatikatu eta iragankorren bidez ezin da ez sortu, ez lortu. Egiatan, identifikazio malguak, pluralak, hautazkoak edo desozializatuak dituztenek beti izaten dute identitate astun eta egituratzaileak babesten dizkieten erakunde eta dispositibo teknoburokratiko askoren laguntza. Identitate merkatuan kapitala babestu beharra dago.

Halako merkatu batean, nor askatu ahal da izendatzaile zurrun eta solidoa izatearen zamatik? Nork du izena eta izana nahierara artikulatzeko edo hautatzeko eskumenik? Zein identitate dira hautazkoak, zein jaso beharrekoak? Bila dezagun erantzuna adibide honetan:

«I can be, at the same time, an Asian, an Indian citizen, a Bengali with Bangladeshi ancestry, an American or British resident, an economist, a dabbler in philosophy, an author, a Sanskritist, a strong believer in secularism and democracy, a man, a feminist, a heterosexual, a defender of gay and lesbian rights, with a nonreligious lifestyle, from a Hindu background, a non-Brahmin, and a nonbeliever in an afterlife (and also, in case the question is asked, a nonbeliever in a “before-life” as well)».

Horrela zehazten du bere burua Amartya Sen-ek (2006:19) hainbat ideiari eusteko: «identities are robustly plural (...) a person has to make choices—explicitly or by implication—about what relative importance to attach, in a particular context...» Sen politika komunitaristen aurka ari da, baina aldi berean zerrenda horretan *citizen, resident, author, man, lifestyle, nonbeliever* eta jite berekoak erabiltzen ditu horiek hautatzea eta izatea bermatzen dizkioten egitura soziopolitikoak aipatu gabe, ezaugarri horiek berez izango balitu bezala. Jarrera liberal humanista arrunta da, baina aipamenean oraingo identitate politikaren gakoetako bat agertzen da: pertsonak erabaki behar omen du zein den egoera jakin batean identitate egokia. Erabaki eta hautaketa horiek mugatuta daude beti norberak dituen identitate baliabideen arabera. Eta jende askorentzat ez dago ez erabakitzerik, ez hautatzerik: identitate edo posizio sozial batean estekaturik eta harrapaturik bizi behar du, edo hautatu nahi duena ez zaio espazio publiko sozialean onartzen: identitateen alardean ere ezin da hautatu.

Identitateen ahultasuna, likidotasuna, eta moldagarritasuna adierazteko identitate erreperitorioen kontzeptua proposatu da (Blommaert 2005; Blommaert & De Fina 2017). Erreperitorioak, alta, beti izaten dira batzuentzat baliabide eta kapital, eta besterentzat gabezia eta muga. Identitate merkatuak egiturako desberdintasunak areagotzen ditu (Sampedro, 2003:10), eta identitate anitz eta aldaberak ez izatea gutxiespen moralerako aitzakia bihurtzen da. Arestian esan dut gizarte modernoetan diferentziak identitate nagusiaren osagarriak zirela, baina gehienetan eremu pribatura mugaturiko osagarriak. Gaur egun egiturako identitateak identitate monolitiko ofizialean diferentziak onartzen ditu publikoki ere. Eta ondorioz, osagarri gisa geratzen dira, identitate-nagusia-ez-den-hura bezala subordinaturik, identitate bati atxikirik bizi behar edo nahi dutenak.

Identitate joko sozialak merkatu librean antzera irudikatzeak ondorio asko ditu paradigma neoliberalen: identitatea kontsumo gai edo kapitala izango da, beti kontsumitzaile indibidualaren interesetara moldatu beharko da, desioak eta helburuak asetzeko baino ez da izango, eta abar. Nik nabarmenduko nuke identitateak debaluatzen direla bide horretatik, bai eta diferentziak ere, baina, batez ere, desberdintasunak ulertzeko eta bizitzeko irakurketa kolektiboak eta erantzun komunitarioak deslegitimatzeko direla. Alegia, sistematikoki ostentzen dira norberaren posizioa eta bizitza baldin-

tzatzen duten egiturak eta sistemak. Hala, erantzun kolektiboek zentzua galtzen dute banakoen desio, boto, erabaki, sentimendu, joera, gustuak eta abar guztiz banakaturik ezartzen dituzten sistemetan. Azken finean, identitate hierarkia ez da jausi, bere horretan dirau. Nazio-estatuak joko bikoitza dute identitateei dagokienez, batetik goi-klaseek (kapital mota guztietan aberatsak) ondo gozatu ahal dute identitate merkatuaz, euren identitate berme nagusiak galdu gabe; baina, bestetik, behe-klaseak (eta zer esanik ez, estaturik gabekoak) identifikazio zapaltzaileen mende bizi behar dute, ahal duten neurrian kontsumo adierazkorretik apurrak hartzen (eta aldi berean naziotasuna edo erlijioa eskaintzen zaizkio jendeari globalizazioaren kalteetatik babesteko). Horrenbestez, oraingo klase hegemonikoa bizi-estiloko sare translokaletan bizi ahal da, naziotasunaren berme juridikoa duen, eta edozein praktika sozial erabil ahal da identitate baliabide eta kontsumogai adierazkorrek ekoizteko lehengai gisa.

Ondorioz, bizi gaituen (neo)liberalismo arrunt banalizatuak identitateen alderdiak lokatu ditu. Horretan modernitatean hasi zen bidetara eutsi dio, besterik gabe alderdi horiek gero eta bereziagoak eginez (gogora ditzagun zein diren alderdi horiek: identitate artikulazio edo figurazioak, jendearen identifikazio sentimenduak, jendearen bizi praktikak, identitate objektu eta ondareak, botere publiko eta kolektiboak eratzeko instituzioak eta haiek legitimatzeko diskurtsoak). Alabaina ez dira jende guztientzat berdin lokatu, kasu zenbaiten horien arteko uztarketa botereen esku dago. Gizarte liberalean desakoplatze hori askatasun eta kapital gisa bizi dute goi-klaseek. Kapitalik ez dutenak ezin dira sartu identitateen (hiper) merkatuan<sup>16</sup>.

Azkenik, oraingo identitate egoeraren balantzea osatzeko identitate gogor edo solidoen itzulerari erreparatu behar diogu. Esate baterako, Rogers Brubaker-ek (2015) hiru itzulera aztertu ditu: desberdintasunarena, biologiarena eta sakratuarena. Brubaker-ek ikuspegi konstrukzionista defendatu arren, argi bide du itzulera horiek taxutzen dutela identitateen auzia. Nire ustez, globalizazioaren testuinguruan ulertu behar dira itzulera horiek, jende askok ezin dio zentzurik antzeman modernizazioak eta globalizazioak ekarri duten identitate lokatzeari, ezta eredu hegemonikotik eragindako kalteei konponbiderik eman ere. Nahitaez eredu hori euren baldintza eta egoerara

16 Bestalde, gizarte modernoetan asmatu diren erregistro eta kontrol aparatu eta dispositibo bidez jasotako datuei *Big Data*ren bitartez jasotzen ari direnak gehitu behar zaizkie. Horiek erabiliz estatuak eta enpresek etengabeko kategorizazioak ari dira egiten jendeak kontrolatzeko eta portaerak eragiteko. Ez dituzte lehengo kategorio soziologiko burokratiko finkoak behar, ez derrigor, aukeran datuak egoki ustiatuz berehalako segimendua egin ahal diete populazioei. Segimendu itsua, baina eraginkorra, da askotan: identitate algoritmikoa baino ez dute sortzen, praktiken analogiak edo korrelazioak bilduz baina sailkatze efektuak dituzte, eta aurreikustekoa da gero eta handiagoa izango direla (Blomaert, 2017: 29). Halakoak dispositibo adimentsuek, biogenetikak, nanoteknologiak eta bestek sortuko dituzten transhumanitateekin elkarloturik izango dira.

egokitu behar dute eta horretarako *identitate solido-autentiko-jator-objektibo-ez hautatuak* ulergarritasun tresna moduan erabiltzen dituzte. Dena den, “itzultzen” ari diren identitate solidoak ez dira denak jite edo izaera berekoak, ez dira berdin eraikitzen eta ez dute efektu berdinek. Ez da berdina lanik gabe edo lan prekarioak eginez bizi beharra edota jendea talde biogenetikoetan sailkatzea, ez da berdina estaturik gabeko nazio identitatea sorberritzea edo nazio-populazioak arrazializatzea. Eta, jakina, ez dira berdinak sailkatze eta kategorizatze horiek sor ditzaketen intersekzioak, ezta batetik bestea iragateko dauden aukerak ere.

## 5. EUSKAL ANOMALIA, IDENTITATEAK LOKATZE AROAN

Arestian esan dut *euskal identitate egitatea* euskal identitatea asmatzearen lan semiotiko-materialaren tradizioa dela. Eta lan edo jarduera haren alderdiak aletu ditut, horiek dira, identitate gehienen kasuan bezala, gaurko egoeran lokatu diren alderdiak, lokatze hipermoderno eta neoliberaltzat jo dezakegun joera hazkor batean. Ez dira sekula batera joan, gizarte monolitiko huts bat sortuz, baina hala-holako lotura eta uztardura izan dute jendarte ez-modernoetan eta estatu modernoetan. Orain, gero eta bereiziagoak ditugu identitate konfigurazioak, identifikazio sentimenduak, bizi praktikak, ondareak, botere publiko eta kolektiboen instituzioak, haiek legitimatzeko diskurtsoak... Horrek ez du esan nahi batzeko ahaleginik ez den. Alderantziz, gorputz homogeen eta solidoak eratzeko ahaleginak ere gero eta ugariagoak dira. Halakoei *identitate programa gogorra* deitu ahal diegu, eskuarki osagai baten inguruan ardatzen diren programa erreaktiboak; eta beste aldean, izariak erabat lokatu nahi dituzten programei *postidentitate programak*. Esan barik doa, postidentitate programek ez dute identitatea atzean uzten, ez dute gaintitzen; izan, identitatea politikoki eta kolektiboki deuseztatzeko eta eremu pribatu eta sentimentalera mugatzeko programak dira. Maiz identitate hegemonikoaren eragin egituratzailea ezkutatzeko (naturalizatzeko edo neutralizatzeko) programak baino ez.

Euskal identitate egitatea, euskal *egitate bereizgarria*, beti izan da euskal identitatea definitzeko eta egikaritzeko eztabaida eta borroka eremua. Kasu honetan ere identitate alderdi edo egoera horiek ez dute inoiz guztiz bat egin: jendeen bizi praktikek ez dute inoiz guztiz bat egin, esaterako, euskaldun izateko ikono hegemoniko(ar)ekin, edo ez dira batera ibili botere-legitimaziorako diskurtsoak eta bizi-praktikak. Eta kasuari dago-kionez, programa gogorraren aldaerak erabateko artikulazio batetik osagai nagusi baten hegemoniara mugitu dira. Adibidez: mutur batean bizi praktikak, erakundeak, jendartearen irudikapenak eta abar sistema koherente eta auto-eduki batean batu nahiko lituzkeen etnonazionalismoa topatu dezakegu, eta bestean, gizarte (neo)liberaletako Identitate sistemaren baten aldeko apustua, hau da, herritartasun abstraktu baten hegemoniapean. Programa ahula, berriz, gehienez oraingo egoerari egiten dio men, eta jarrera ustez pos-

tidentitario batetik identitatea bizi-estiloko osagai pertsonala edo askoz jota elkartasun sinboliko batera mugatu ohi du. Kasurako, euskal identitate osagaiak kontsumo gai gisa hartzen ditu, edota erakunde politikoez (edo beste botere-harremanez) irudizko *gutusun* bat sentimenduz eta zentzuz betez bere burua legitimatzeko erabiltzen dituzte. Identitate programa gogor eta ahula zein testuingurutan garatzen diren azaldu nahi izan dut bikote analitiko baten bidez: *Identitatea eta anomalia*<sup>17</sup>.

Modernitatean estatuak nazionalistak izan dira, nazio-identitate bat erabili dute botere politikoa eta soziala legitimatzeko eta nazio homogeen eta zentralizatuak sortzeko ekin diote nazioa diskurtsoa izateaz gain, egiaz populazio sistema soziopolitikoak izan dadin. Naziogintzan, horrenbestez, estatuak *bizi-praktikak* eta *jendeak* erruz bidali dituzte Identitate publiko ofizial homogeneotik, “dibertso pribatu eta partikularrak” izatera behartuta. Identitate komun eta publikoa estatu monopolio bihurtu zen. Merez du sistema sozial horri *Identitatea* deitzea, hura baita gehienetan egiatan gauzatzen den “identikotasuna”.

Identitate hari aurre egiteko bestelako subjektu beregaina asmatu beharra izan dute azpiratutako dibertsoek, euren dibertsitateari zentzua eta bizi-indarra emate aldera, alegia, praktika horiek oso, goren eta orokor gisa agertu behar izan zituzten. Baina hala jokatzeko dutenean, eta hala jokatzeko eusten dioten neurrian, Identitatearen sisteman anomaliak sortzen dituzte, eta Identitate hegemonikoa biluzten dute: euren izaera politikoa eta soziala begi bistan uzten dute, edozein “dibertso azpiraturen” kondizioa da. Zehazte aldera, euskal zeraren kasuan bi aukera, bi izaera, daude Identitatearekiko: Identitatearen mendeko diferentzia aberasgarri, partikularista eta sinbolikoa (bizigabea, ezohikoa...) izan, edo Identitatearen aurka bizi diren anomaliak izan. Euskal diferentziak badu lekunik espainiar/frantziar Identitatean, eta eginkizunik: espainiar/frantziar aniztasun eta aberastasuna elikatzea, sendotzea, apaintzea. Bestela esan, euskal diferentziak ezin du deliberatu Identitate oso eta bateratzailea izatea. Ezin da bizi-eremu batu baten (hots, gizartearen) matrize egituratzailea izan. Horregatik baina, diferentzia azpiratua bainoago, osoa eta parekoa izatea hobesten duten euskal praktikek haustura sortzen dute Identitatean, alegia, beregain jokatzeko duten euskal praktikek Identitatea hausten dute.

Hala ere, anomaliak eta diferentziak gutxitan bereizten dira bakarrik eduki edo formagatik, benetako aldea zentzu-artikulazioan datza. Anomaliak anomalia dira diskurtso batek ukitu eta kokatu dituelako: anomaliak sistema oso baten normaltasuna edukiko balute bezala aritzen dira, are gehiago, sistema oso baten jardun normalizatuak direlako simulazioan aritzen dira (ondo jakinda ez dela horrela, normaz kanpokoa eta mendekoak

17 Batez ere *Identitatea eta anomalia* liburuan, eta auziaren alde politikora zuzenago bideratuta artikulatu bi hauetan: *Euskal Errepublika Independenteaz* eta *Identitateari aurre eginez: euskal separatismoaren eratzeko indarraz*.

direla jakinda). Esan barik doa, anomaliaren artikulazioa eta jokaera *separatismoaren* lana izan dira: Identitatearekiko bereizkuntza lana dira. Euskara aipatzearen: euskara gizarte oso baten hizkuntza izan daitekeela erakusten dugunean, egiten dugunean, simulatzen dugunean (esatez bainoago, egitez) euskara anomalia haustailea da. Ostera ere: sistema oso baten hizkuntza delakoan. Osotasuna lortze aldera euskarari onartu behar zaio ez korpus linguistiko bat, gorputz sozial bat baizik. Eta, hartarako, euskara hierarkia soziopolitikoetan goratu behar da, goienera. Nazio-hizkuntza dela aldarrikatu behar da, hortaz (edo gaurkoagoak omen diren terminoetan, gizarte-hizkuntza dela). Eta sentiera hartan finkaturik, hala balitz bezala aritu behar da, hala gauzatuko bada. Horrela ere, separatismoak euskal anomaliak sortu ditu: subordinatuak izan behar zirenak Identitate gorenaren pare jarritz, beste subjektu politiko superordenatu bat asmatuz, eta bizi-praktika askori bizi-bermea, zentzu osotasun bat, eskainiz.

Normalean 'identitatea' eta enparauko hitzak Identitatea ez diren praktika, artikulazio, gauzatze, antzetzte edota erakundeei egotzen dizkiete Identitateko ahotsek salaketa eta erdeinu gisan. Identitatearen normatibotasun hegemonikoari aurre egin nahi dion edozein eragintzak anomalia izan behar du eta identitategintzan sortzaille porrokatua diferentzia osagarria izatetik ihes egiteko. Horregatik, anomalia sortzaileen ekarpenak kontsideratu behar ditugu, arreta bereziarekin *Queer* mugimendua eta Braidotti-ren nomadismoa (2011). Egia da edozein anomalia diferentzia huts bilakatu daitekeela, Identitateak harrapatu eta identitate hierarkian eta sistema sozialean osagarri eta baliagarri bihurtu daitezkeela, eta berdin gertatu ahal zaiola edozein proposamen semiotiko-materiali (hori bera salatu zaio *Queer*-ari). Baina aipatu proposamenek bidea erakusten digute: subjektibotasun ez-normatiboek etengabe egin behar dute ihes hartutako konfigurazioetatik, etengabe *diferitu* behar dute. Alde horretatik, obsesio identitariotzat jo daitezkeen arren, kontrakoa da, bereizteko obsesioa da (bai eta izandako forma jakinetatik bereiztekoa ere)<sup>18</sup>.

Jakina da: jokaera queer-aren ardatza parodia da eta kategoriak hausteko eta desegiteko grina. Maiz kategoria berriak demasa sortuz: Identitatearen mapak eta gidak

18 Kategoria identitarioak ugaltzea berdin balio dezake jendeak eta euren portaerak menderatzeko edota askatzeko. Bi adibide tipiko: DSMeko (*Diagnostic and statistical manual of mental disorders*) diagnosi kategoriak edizioz edizio joan dira ugaltzen (1952an 106 ziren, 2013an 216), gero eta portaera edo izateko modu gehiago eta gero eta zeheago sailkatzen dituzte eta ondorioz ere gero eta talde biosozial gehiago sortu. Bestaldetik, sexu eta genero bizipenak, praktikak eta jarrerak erruz ugalduta dira sexua eta generoa bizitzeko forma guztiak legitimatze aldera, eta identitate logikak hondatzeko asmoz: lesbiana, gaya, bisexuala, transexuala, transgeneroa, trabestia, intersexuala, queera, asexuala, sexu fluidua, zisexuala, polisexuala, heterossexuala, e.a. Kategoriak baino, haiek nola erabili da gako: jendea jendea jakinetan finkatzeko, kateatzeko diren, edo lotura finkoak eta itxiak hausteko diren.

nahasteko eta irakurgaitzak egiteko, ez da batere harritzekoa: anomaliak, identitategintzan subjektu eta eragintza askeak sortzeko ahaleginak diren aldetik, nahasiak eta narritagarriak izan behar dute. Probokatzaile, zirikatzaile eta gogaikarriak. Ikuskizun eta kontsumo munduan, hori pornografia da. Identitate pornografia gauza eta sinboloetan, erritual eta ikuskizunetan, identitatearen artikulazioak eta ikonoak ahalik eta nabarien, gordinen eta jarraituen antzeztu eta irudikatzea da. Sexu pornografian bezala, identitate jarduna ageriegia eta kitzikagarria izaten da, alegia, identitate sentimenduak iziotu eta gartzen dituen. Ikuskizunaren logikan pornografia besteren batek egiten digun *ikus-kizun narritatzailea* da, edo Besterentzat (Identitatearentzat) egiten dugun ikuskizun plazergilea. Postpornografia, berriz, norberarentzat bizi izandako eskarmentu eta jardun kitzikagarria da. Identitate praktika bereizgarrietan gozamina bilatzen du baina ez publiko batentzat. Haren muina, (des)identitate jokoetan harreman eta eragintza partekatua sortzea da, ez ikono itxi edo estereotipo batzuekiko identifikazioa, arizaleen elkarrekiko identifikazioa baizik. Pornografia antzeppen edo performantzia hutsa da, postpornoa, ordea, performantziaren bidez anomalia (bizi-praktiketan bestela izatea) gauzatzeko ariketa.

Horrenbestez, diferentzia identitarioa pornografikoa izaten da, bereizgarri txikiena edo hutsalena hartu eta identitate seinale bihurtzen du baina, betiere, Identitatearekiko mendekotasunean. Anomaliak, ordea, pornografian gozamen propioa bilatzen du (eta maiz, min propioa jasan behar du). Biak, bistan da, eredu analitikoak dira, maiz ez dugu jakingo zer dugun aurrean, non den identitate porno eta postpornoaren arteko muga, baina bikote horren bidez, uler daiteke identitategintzan bertan dagoen tentsioa eta nola maiz identitate joko edo praktika narritagarri horiek ez diren ikono eta artikulazioen zaharbertitze hutsa, gauzatze errepikakorrak edo esentziekiko obsesio itsua. Nola, askotan identitate jokoak subordinatua, gutxitua edo baztertua ez izateko borroka diren. Gure gaira etorrita, euskal identitategintzan pornografia erbestea da, sentiera eta zentzua besterentzea, azaleko eta kanpoko sentiera bat hartzea. Askotan pornografia identitarioa identitate bereizgarriak eta bizimoduak bat ez datozela ezkutatzeko baino ez da, auto-irudi kontsolagarriak sortuz. Anomalia postpornografikoak, berriz, euskal normalitateak dira, Besterentzat ulergaitzak, arraroegiak egiazkoak izateko, seriotan hartzeko, susmagarriak ez izateko.

Bistan da, euskal zera (euskaltzat jo dezakegun *edozer* hura) lekuan-lekuan eta beste identitate artikulazio eta gauzatze eta egituratze praktikekin batera egikaritu behar da, intersekzioan eta uneko egoeran, hain zuzen. Horrek oso esanahi eta adiera desberdinak emateaz gain, produktu anitz eta bizipen asko eragiten ditu. Ezin da berdin izan eta bizi euskal zera Zuberoako pastoraletan eta Meatzaldeko gazte lokaletan, ezin Kaliforniako diasporan eta Txina aldera joandako euskal langileen artean, ezin Bilboko turismo giroan eta etxeko lanak egiten bizi diren migratzaileen zirkuluetan... Baina figurazioak edo ikonoak artikulatzean, diskurtsoak eratzean eta bizi-praktiketan jardutean sortu eta landu



diren materialek eduki eta egituraketa bat eman diote egintza jario horri. Alde horretatik, euskal konstruktura eta sentiera, eraikiak eta oso asmatuak izanagatik, ez dira guztiz eragabeak eta ez dira hutsetik asmatu beharrekoak (horretarako tentazio handia dugun arren). Soilik, estatu Identitate sistemetan baztertua eta gutxitua izan zelako da anomalia gisa bizi behar duen identitategintza bat. Gogora dezadan: *euskal egitate modernoa* estatuen homogeneizazioaren aurka jaio eta eratu zen, estatuen batasun politiko, kultural, linguistiko edota juridikoaren aurkako erresistentziak bizi izan du euskal zera. Hartarako, estatalizazioaz aurretiko baldintza materialak bestela interpretatu eta berriak sortu behar izan zituen. Bi asmatze eta gauzatzeko tradiziori eman zien segida, edo bestela ulertuta, bi kondizio materialetan *konstrukturatu* zen: batetik, euskara eta euskal produkzio eta asmatze kulturala, eta bestetik, erakunde juridiko-politikoak, batez ere, foru-erakundeak eta haiei atxikitako jende elkargo asmatuak. Esan barik doa, *euskal egitatea* nazio-homogeneizazioaren molde eta neurria egin zen gehienbat, nazionalista izan zen.

Orain, globalizazio neoliberalen identitate programa gogorrek berragertzen ari direnean eta identitate adierazkor anitzen normatibotasuna nagusi denean, ezin da nazionalista izan, lehengo modu sinplean, ezin dira identitatearen izariak bateratu. Nire iritziz, halako inguruabarrean programa gogorren eta ahulen arteko dikotomiatik ihes egin beharko luke euskal identitategintzak. Nola? Aukera bat proposatzera nik *komunen* hipotesi eta modari eutsiko nioke; ez alperrik, tradizio hori ere gurea dela esan dezakegu, lasai asko etnikotasun berri asmatuz, eta hainbat arlotan figurazio irekiak artikulatuz bizi-praktika erakargarri eta zentzuz betetakoak, bai eta kolektiboak ere, sortze aldera. Baina, zergatik komuna? Bistan da, Euskal Herriko jendeak askotariko harreman sistemetan bizi dira eta biziko dira. Konplexu eta askotarikoak dira horko identitate jokoak: harreman haietan nor diren (zein rol eta estatus dituzten euren harreman zirkuluetan), nolakoak diren (zein diren euren ohiko praktika gorpuztuak), eta nola antolatzen diren (zein egituratze sozial ari diren materializatzen). Baina, lehengo herri-baliabideak erabiltzen ziren modura, jende diferente horiek hainbat balio erabili, kudeatu eta zaindu ditzakete komunean. Hori da partzuergoaren ideia, errez eraman ahal dena identitategintzara, hainbat irizpiderekin: batetik, kideen arteko lotura guztiz praktikoa da, jardun eta zaintza batean kide izatea baita, bestetik, kudeaketa ereduak konfigurazio irekiak eta kide guztien eragintzaren legitimazioa eskatzen du, eta azkenik, kideek balioztat duten zerbaiten zaintza, erabilera eta probetxu kolektibo zein pertsonala dira helburuak. Galdera, beraz, zera da, zein dira eta izango dira komun horiek? Non, zeren bidez, asmatuko dira euskal identitate berriak, eta non umotuko dira euskal sentierak?

Finean, komun edo herri partzuergoaren ideia, globalizazioaren baitan euskal anomaliak sortzeko proposamena baino ez da. Badakit askok pentsatzen duela euskal Identitatea behar dugula, hau da, estatu batek eman lezakeen Identitate sistema behar dela (esaterako: Galfarsoro, 2017). Alabaina, globalizazioan Identitatea ez da estatuen lana soilik, estatuek Identitate globalaren euren bertsio *bernakularra* defendatzen saiatzen

dira, baina programa gogorren gorakadak erakusten du ez dela nahiko babes horrekin. Globalizazioaren Identitate sistemak autonomia hartu du estatuen gainera: mundu mailako korporazioek agintzen dute gero eta gehiago eta fenomeno sozio-kultural edo mugimendu politiko globalek berezkotasuna lortu dute. Gure *vernacular globalization* (Appadurai, 1996) porno/postporno eta diferentzia osagarria/anomalia dinamiketan garatuko da. Arestian esan dut nire iritziz zer gertatuko zaion euskal identitategintzari Identitatean porno osagarriaren hautua nagusitzen bada eta euskal estatu batek, uste dut, hautu hori egingo luke. Nik euskal identitategintzari arnasarik sumatzen badio, globalizazioan anomalia ugarietako bat izaten antzematen diot. Gero hori aurreikusitako behar diot euskal *egitate bereizgarriari* bizigarria eta zentzuduna izango bada.

Euskal komun horiek nola sortuko diren espekulatzea baino hobe dugu ikustea nola ari diren sortzen oraintxe bertan, euskal kultura edo identitatea deitzen dugun gehiena (batez ere, anomalia postpornografikoetan) *komunen konstruktura* hori baita. Eta konstruktura semiotiko-material hori ez da hutsa (badu materialtasunik: ondare, erakunde, institutuak, eta badu semiotikarrik: diskurtsoak, artikulazioak, ...); ez da substantzia gabekoa, nahiz eta substantzia hori historikotasun ireki bat baino ez izan; ez da sentimen pertsonal hutsa, asoziala edo psikologikoa, praktika eta jardun intersubjektiboetan lantzen den *sentiera kolusiboa* da; eta polemikoa da, baina ez soilik bere baitan figurazioak artikulatzeko eta diskurtsoak taxutzeko iritzi eta jarrera kontrajarriak daudelako, baizik eta Identitateetik diferentzen izan beharra duelako. Identitatearen aurkako jarduna izan da eta da. Horrek denak kondizionatzen du zer den eta zer izango den euskal *egitate bereizgarria*. Kondizio material-semiotiko horiek Identitate estatal-globalean eta diferentziaren eta anomaliaren arteko dinamiketan zaharberritzea, sorberritzea eta berrasmatea da euskal identitategintzaren erronka.

## BIBLIOGRAFIA

- Alcoff, Linda M. (et al.) (eds.) (2006): *Identity Politics Reconsidered*, Palgrave Macmillan, New York.
- Apodaka Ostaiakoetxea, Eduardo & Morales i Gras, Jordi (2013): "Ontologia sozialen erabilera erretorikoak: egia eta artifizioa identitate eraikuntzan. Euskal eta kataluniar identitateen kasuak", in J. Zabalo (ed.). *Nazionalismoa Ikertuz. Naziotik estatura XXI. mendean*, Euskal Nazionalismoa XXI mendean, Bilbo, 51-74.
- Apodaka Ostaiakoetxea, Eduardo (2015a): *Identitatea eta anomalia*, Pamiela, Iruñea.
- Apodaka Ostaiakoetxea, Eduardo (2015b): "Euskal Errepublika Independentiaz", *Jakin. Herria, nazioa, estatua... eta euskararekin zer*, 208, 91-106.

- Apodaka Ostaiakoetxea, Eduardo (2017): "Identitateari aurre eginez: euskal separatismoaren eratzte indarraz", in M. Uranga (ed.), *Erabakitze eskubidea, botere eragilea, burujabetza*, Sorzain, Bilbo, 79-105.
- Appadurai, Arjun (1996): *Modernity At Large: Cultural Dimensions of Globalization*, University of Minnesota Press, Minneapolis.
- Aubert, Nicole (2004): *L'individu hypermoderne*, Édition Erès, Paris.
- Bauman, Zigmunt (2001): *La sociedad individualizada*, Cátedra, Madrid.
- Beck, Ulrich & Beck-Gernsheim, Elisabeth (2002): *Individualization. Institutionalized Individualism and its Social and Political Consequences*, Sage, London.
- Beetz, Johannes (2016): *Materiality and Subject in Marxism, (Post-)Structuralism, and Material Semiotics*, Palgrave Macmillan, London.
- Blommaert, Jan & De Fina, Anna (2017): "Chronotopic Identities: On the Timespace Organization of Who We Are", in A. De Fina, et al. (eds.) *Diversity and Super-Diversity. Sociocultural Linguistic Perspectives*, Georgetown University Press, Washington, 1-15.
- Blommaert, Jan (2005): *Discourse: A Critical Introduction*, C.U.P., Cambridge.
- Blommaert, Jan (2017): "Durkheim and the internet: On sociolinguistics and the sociological imagination", *Working Papers in Urban Language & Literacies*, 204.
- Bourdieu, Pierre (1997): "La ilusión biográfica", in P. Bourdieu, *Razones prácticas. Sobre la teoría de la acción*, Anagrama, Barcelona.
- Bourdieu, Pierre (2000): "Las formas del capital. Capital económico, capital cultural y capital social", in Pierre Bourdieu, *Poder, Derecho y Clases Sociales*, Desclée de Brouwer, Bilbo.
- Braidotti, Rossi (2011): *Nomadic Subjects: Embodiment and Sexual Difference in Contemporary Feminist Theory*, Columbia University Press, New York.
- Brubaker, Rogers (2015): *Grounds for Differences*, Harvard University Press, Harvard.
- Brubaker, Rogers (2016): "The Dolezal affair: race, gender, and the micropolitics of identity", *Ethnic and Racial Studies*, 39:3, 414-448.
- Bucholtz, Mary & Hall, Kira (2004): "Language and Identity", in A. Duranti (ed.). *A Companion to Linguistic Anthropology*, Blackwell, New York.
- Castillo Sepúlveda, Jorge (2015): "Identidad y equipamiento en colectivos biosociales: una lectura semióticomaterial", *Summa Psicológica*, 12, 1, 51-61.
- Chandler, David & Reid, Julian (2016): *The Neoliberal Subject, Resilience, Adaptation and Vulnerability*, Rowan & Littlefield, London.

- Coole, Diana & Frost, Samantha (2010): *New Materialisms: Ontology, Agency, and Politics*, Duke University Press, Durham, NC.
- De Landa, Manuel (2006): *A New Philosophy of Society: Assemblage Theory and Social Complexity*, Continuum, London and New York.
- Descombes, Vicent (2013): *Les embarras de l'identité*, Gallimard, Paris.
- Desrosières, Alain (1989): "Comment faire des choses qui tiennent: histoire sociale et statistique", *Histoire & Mesure*, 4, 3, 225-242.
- Dolphijn, Rick & van der Tuin, Iris (2012): *New Materialism: Interviews & Cartographies*, University of Michigan Library, Michigan.
- Galfarsoro Madariaga, Imanol (2017): "Independentzia? Bai, eskerrik asko", in M. Urra (ed.) *Erabakitzeke eskubidea, botere eragilea, burujabetza*, Sorzain, Bilbo.
- Gleason, Philip (1983): "Identifying Identity: A Semantic History", *Journal of American History*, 69:4, 910-931.
- Haraway, Donna (1991): *Simians, Cyborgs, and Women: The Reinvention of Nature*, Free Association Books, London.
- Harding, Sandra & Hintikka, Merrill (1998): *Discovering Reality: Feminist Perspectives on Epistemology, Metaphysics, Methodology and Philosophy of Science*, Reidel, Dordrecht.
- Haritschelar Duhalde, Jean (1986): "Introducción", in J. Haritschelar (ed.) *Ser Vasco*, Mensajero, Bilbao (jatorrizkoa: 1983, *Etre basque*, Privat, Toulouse).
- Harré, Rom & van Lagenhoven, Luk (1999): *Positioning Theory: Moral Context to Intentional Action*, Blackwell, Oxford.
- Irvine, Judith T., & Gal, Susan (2000): "Language Ideology and Linguistic Differentiation", in P. V. Kroskrity (ed.), *Regimes of Language: Ideologies, Politics, and Identities*, School of American Research Press, Santa Fe, NM.
- Jablonka, Frank (2014): "Qu'est-ce qui émerge dans les variétés émergentes?" in R. Colonna (ed.). *Les locuteurs et les langues: pouvoirs, non-pouvoirs et contre-pouvoirs*, Lamber-Lucan, Limoges.
- Keller, Rudolf (1990): *Sprachwandel*, Francke, Sluttgart.
- Lash, Scott (2005): *Crítica de la información*, Amorrortu, Buenos Aires.
- Latour, Bruno (1999): "On recalling ANT", in J. Law & J. Hassard (eds.) *Actor Network Theory and after*, Blackwell, Oxford, 15-25.
- Latour, Bruno (2001): *La esperanza de Pandora*, Gedisa, Bartzelona.
- Latour, Bruno (2008): *Reensamblar lo social. Una introducción a la teoría del actor-red*, Manantial, Buenos Aires.

- Laval, Christian & Dardot, Pierre (2013): *La nueva razón del mundo. Ensayo sobre la sociedad neoliberal*, Gedisa, Bartzelona.
- Lazzarato, Maurizio (2013): *La fábrica del hombre endeudado*, Amorrortu, Buenos Aires.
- LePage, Robert Brock & Tabouret-Keller, Andrée (1985): *Acts of Identity*, C.U.P, Cambridge.
- M'charek, Amade (2013): "Beyond Fact or Fiction: On the Materiality of Race in Practice", *Cultural Anthropology*, 28, 3, 420–442.
- Mol, Annemarie (2002): *The Body Multiple: Ontology in Medical Practice*, Duke University Press, Durham.
- Moya, Paula M. L. (2000): "Introduction: Reclaiming Identity", in P. M. L. Moya & M. R. Hames-García (eds.) *Reclaiming Identity: Realist Theory and the Predicament of Postmodernism*. University of California Press, Berkeley, 1-26.
- Rabinow, Paul (2009): *Anthropos Today: Reflections on Modern Equipment*, Princeton University Press, Princeton.
- Sampedro Blanco, Victor F. (2003). *La pantalla de las identidades: Medios de comunicación, políticas y mercados de identidad*, Icaria, Bartzelona.
- Sen, Amartya (2006): *Identity and Violence: The illusion of Destiny*, Norton, New York.
- Sennett, Richard (1998): *La corrosión del carácter*, Anagrama, Madrid.
- Sennett, Richard (2006): *La cultura del nuevo capitalismo*, Anagrama, Madrid.
- Shotter, John (1999): "Beyond social constructionism: re-thinking and re-embodying the Cartesian subject/agent", in S. Arkonac (ed.), *Doing psychology in Non-Western Societies*. Baðlam Publications.
- Shove, Elizabeth; Pantzar, Mika & Watson, Matt (2012): *The dynamics of social practice. Everyday life and how it changes*, Sage, London.
- Simmel, Georg (1986): *El individuo y la libertad*, Península, Bartzelona.
- Tilly, Charles (1990): *Coercion, Capital, and European States, AD 990-1992*, Basil Blackwell, Oxford.
- Žižek, Slavoj (1992): *El sublime objeto de la ideología*, Siglo XXI, México.